

## **BAO 214 ZK.2004, AZAROAK 5 ARGITARATUTA**

### **UDAL ORDENANTZEA, TELEKOMUNIKAZINO SAREETAKO INSTALAZINO IRRATI-ELEKTRIKOAK ARAUTZEN DAUZANA**

#### **HITZAURREA**

Telekomunikazioen merkaduaren liberalizazioaren eraginez azkar hazi dira kalidadezko zerbitzua egiteko beharrezkoak diran telekomunikazio elementu guztiak. Telekomunikazio zerbitzuek lurraldean eragin zuzena daukien azpiegiturak behar dabez. Zientzia eta Teknologia Ministerioak baimendutako operadoreak ezarteko prozesuak eta merkaduaren gorakada azkarrak nolabaiteko disfuntsinoak eragiten dabilz eta disfuntsino honek eragina daukie toki administrazioan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25., 26. eta 28. artikuluetan eta urigintza eta ingurumen arloko araudian onartzen diran eskumenen arabera, udalerriek prozesu honetan esku-hartzeko ahalmena daukie.

Ordenantza honetan batzen dan udal erregulazioa alde batera itzi barik, guztiz eta nahitaez aplikatu beharko da telekomunikazioen sektorea arautzen dauen sektoreko araudi espezifikoa.

Arlo honetako legerik garrantzitsuena honakoa da: 11/1998 Lege Orokorra, apirilaren 24koa, Telekomunikazioei buruzkoa (aurrerantzean, TLO). Horren aurretik, ostera, 1/1998 Errege Lege Dekretua, zezeilaren 27koa, Eraikinen barruan dagozan Telekomunikazioen Zerbitzuetara sartzeko Azpiegitura Komunak arautzen dauzana onartu zan.

TLOa erregelamentu honek garatu dabe:

Garagarrilaren 24ko 1651/1998 Errege Dekretuak Interkonexinoa eta Sare Publikoetarako Sarrerea arautzen dauen Erregelamentua onartzen dau.

Garagarrilaren 31ko 1736/199 Errege Dekretuak Zerbitzu Unibertsala, Zerbitzu Publikoko gainerako Betebeharrak, eta Zerbitzuen Prestazioan eta Telekomunikazio Sareen Ustiapenean Izaera publikoa daukien Betebeharrak arautzen dauzan Erregelamentua onartzen dau.

Zezeilaren 22ko 279/1999 Errege-Dekretuak Telekomunikazioen Azpiegiturak eta arlo honetan egon daitezkezan Mueta guztietako Instalazioen eta Ekipoen Erregelementazioak eta Zehaztasun Teknikoak arautzen dauzan Erregelamentua onartzen dau.

TLOa garatzeko xedapen garrantzitsuenetakoa irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretua izan da. Errege Dekretu honek Jabari publiko Irrati-elektrikoa babesteko Baldintzak, Emisino irrati-elektrikoen Mugak eta Osasuna Emisino irrati-elektrikoetatik babesteko Neurriak ezarten dauzan Erregelamentua onartzen dau. Hori holan izanik, ordenantza honen arautze-esparrua zehazten da.

1066/2001 Errege Dekretuaren arrazoien azalpenean adierazoten da xedapen honen bidez bere gain hartzen dirala jentea orokorrean eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruzko Europako Batasuneko Osasun Ministroen Kontseiluaren 1999ko garagarriaren 12ko Gomendioan ezarritako erispideak, hau da, osasuna emisino irrati-elektrikoek sortutako eremu elektromagnetikoetatik babestekoak.

Horrenbestez, ordenantzea tresna baliagarria izango da mueta honetako instalazioek bete beharko dabezan ingurumena babesteko baldintzak, segurtasun-baldintzak edo urigintza-baldintzak ezarteko. Izan be, mueta honetako instalazioetarako lizentziak emoterakoan hori guztia kontrolatu egingo da.

## **I. TITULUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua. Helburua.**

Ordenantza honen helburua Bermeo udalerrian instalazio irrati-elektrikoek kokapenerako, instalaziorako eta funtzionamendurako bete behar dabezan udal baldintzak arautzea da. Batetik, instalazio irrati-elektrikoek ahalik eta espazio gitxien okupatu daien, eta bestetik, ahalik eta ikus-eragin txikiena euki daien, eta ingurumenean be ahalik eta eragin txikiena izan daien.

#### **2. artikulua. Aplikazio esparrua.**

Ordenantza hau esparru honeetan aplikatuko da: espazioan zehar gida artifizial barik hedatzen diran eta estazino irrati-elektrokoek eta estazino irrati-komunikazioetakoek sortzen dabezan edota irrati-astronomiako estazinoek jasoten dabezan uhin elektromagnetikoen itxurapeko energia-emisino guztietan. Beraz, estazino irrati-elektrotzat hartuko dira: transmisore edo hargailu bat edo gehiago, bien konbinazioa, eta bai irrati-komunikazinoen zein irrati-astronomiako zerbitzua ziurtatzeko beharrezkoak edo osogarriak diran instalazioak.

## **II. TITULUA**

### **GARAPEN PROGRAMEA**

#### **3. artikulua. Garapen programearen komunikazioa.**

1. Udalerrian soinuaren irrati-difusio eta telebista-zerbitzuei euskarria emateko sareak ezarri, edota Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako B2 eta C2 titulartasunaren ondorio diran jarduerak hedatu nahi dauzan operadore bakotzak, Bermeo udalerrirako aurreikusita dagoan garapen programa eguneratua aurkeztu beharko dau.

2. Dokumentu honek nahitaez gaineratu beharko dauz gaur egun Bermeo udalerrian ezarrita dagozan instalazioen sareen hedapena, eta bai aurreikusten diran instalazioena be.

3. Operadoreek eremu zehatz bat hartzeko, batera aurkeztu ahal izango dabez garapen planak, bai etorkizuneko teknologien kasuan, bai gaur egungo teknologien kasuan, oraindik be teknologia honeen sarea hedatu barik badago.

#### **4. artikulua. Programearen edukia.**

1. Programeak ondoko elementuak zehaztu beharko dauz Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako B2 eta C2 titulartasunaren ondorio diran jarduerak hedatzeko:

a) Oinarrizko estazino, antena eta irrati-frekuentziako beste elementu batzuen ezarpena.

b) Oinarrizko estazinoak eta antenak: izena, kokatzeko proposatzen dan aldea.

- c) Egindako zerbitzuen eta erabilitako teknologien deskribapena.
  - d) Udalerrian edo, halan bajagoko, udalaz haraindiko esparruan proposatutako urtenbide teknikoaren justifikazioa.
  - e) Ekipoak ezarteko eremu barrien aurreikuspena, eta hartuko dan eremu geografikoaren justifikazioa.
  - f) Lanak burutzeko gitxi gorabeherako egutegia.
  - g) Antenak kokatzeko alternatiba teknikoak.
  - h) Proposatutako kokaleku eta kokapen alternatiboen kartografia, UTM koordinatuakaz.
2. Soinuaren irrati-difusino eta telebista-zerbitzuei euskarria emoteko sareak ezarri nahi dabezan operadoreek edo enpresek aurreko paragrafoko a), d) eta f) atalak zehaztu beharko dabez gitxienez.

#### **5. artikulua. Telekomunikazio zerbitzuetarako udal antolamendua.**

Udalak telekomunikazio zerbitzuen sarean beharrezkoak diran instalazioen kokalekua —konpartidua edo konpartidu bakoia— antolatzeko operadore bakoitzaren garapen programetan batzen dan informazioa erabili ahal izango dau, beti be teknikoki eta legez leitekeana bada.

#### **6. artikulua. Garapen programea eguneratzea.**

1. Garapen-programan batzen dan informazioa eguneratzen danean, udalari horren barri emon beharko jako, honek telekomunikazio zerbitzuen antolamenduan garatzen egongo dan balizko plangintza egokitu ahal izateko. Gaur egungo sarearen eguneratzeen kasuan, gehienez be 4 hilebeteko epean emon beharko jako udalari eguneratzeen barri, eta garatzeko aurreikuspenen kasuan gehienez be urtebeteko epean, ordenantza hau indarrean jarten danetik.

2. Operadore bakoitzaren garapen programan etorkizunean egin daitekezan aldaketak udalari bialdu beharko jakoz.

### **III. TITULUA**

#### **UDAL LIZENTZIA**

## **7. artikulua. Lizentzia eskatzea.**

1- Ordenantza honen xede diran instalazinoek urigintza betebeharrak eta legez ezarritako baimenak bete beharko dabez.

2- Udalerri honetan soinuaren irrati-difusino eta telebista-zerbitzuei euskarria emoteko sareak, eta Zientzia eta Teknologia Ministerioak emondako B2 eta C2 titulartasunaren ondorio diran jardueren instalazinoarako eta funtzionamendurako, instalazino eta funtzionamendu lizentzia izapidetu beharko da, martiaren 9ko 165/1999 Dekretu-Autonomikoan arautzen dan prozedurea jarraituz; izatez, dekretu honek zezeilaren 27ko 3/1998 Ingurumena babesteko Legean edo honen ordezkoko araudian aurreikusten dan jarduera-lizentzia lortu beharraz salbuetsita dagozan jardueren zerrendea finkatzen dau.

3- Ezarri gura diran telekomunikazino instalazinoak ingurumenari jagokonez sentikorrek diran eremuetan ezarri gura izan ezker, 3/1998 Ingurumena babesteko Lege Orokorrean edo honen ordezkoko araudian arautzen dan ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura indibidualizatuaren menpe egongo dira, baita ingurumena babesteko jasoten diran gainerako betebeharren menpe be.

4- Artikulu honetako 2. idatz-zatian jasoten diran izapideak egiteko, instalazino eta obrak baimenduko dauzan lizentzia emongo da aldi berean. Instalazino abiarazi aurretik, udalari jakinarazo beharko jako instalazinoen ikuskapena edo azterketa ontzat emoten dauen Zientzia eta Teknologia Ministerioko zerbitzu teknikoaren irizpena, hareek proiektuari egokitzen jakozala egiaztatzen dauena. Horretarako, kasuan kasuko instalazino muestearen arabera jagokozan ziurtapen teknikoak gaineratu beharko dira.

5- Udal lizentzia emon aurretik, ordenantza honetako 3. eta 4. artikuluetan arautzen dan instalazinoen garapen programea aurkeztu beharko da, baita aplikatu beharreko araudiaren indarrez beharrezkoak diran baimenak be.

## **8. artikulua. Neurri osogarriak hartzea.**

1. Udaleko zerbitzu teknikoek 7. artikuluan adierazotako udal lizentzien izapideak egiteko aurkeztutako dokumentazino teknikoa egiaztatu ostean, eta aurkeztu ahal izan diran alegazinoak aintzat hartuta, udalak neurri osogarriak ezarri ahal izango dauz irrati-frekuentziako instalazinoek behar bezala ibili daitezcan.

2. Era berean, ingurunearekin mimetismoan eta harmonian egoteko beharrezkoak diran ekintzak be ezarri ahal izango dira.

#### **9. artikulua. Udalari jakinarazotea.**

1. Instalazioaren titulartasuna aldatu edo ordeztu gura bada edo telekomunikazino instalazio irrati-elektrikoetako elementuak eta antenak ordezkatu gura badira, udalari jakinarazo beharko jako.

2. Lizentzia lortzeko funtsezkoak izan diran ezaugarriak guztiz aldatu edo barritu gura badira, honeek instalatzeko eskatu ziran baldintza berberak bete beharko dira.

#### **10. artikulua. Txosten osogarriak.**

Udalak, espedientea osotzeko bideratu beharreko egintza moduan, txostenak eskatu ahal izango dauz erabagia hartzerakoan aintzat hartu beharreko datuak finkatzeko, ezagutzeko eta egiaztatzeko.

#### **11. artikulua. Dokumentazioa.**

7.2 artikuluan araututako lizentzia eskariari dokumentazio teknikoa gaineratu beharko jako. Dokumentazio tekniko honen gitxieneko edukia I. eranskinean finkatuko da.

### **IV. TITULUA**

#### **INSTALAZINOAREN BALDINTZAK**

#### **12. artikulua. Erispide orokorrak.**

Oro har, irrati-frekuentziako instalazioek ondoko erispideak bete beharko dabez:

1. Merkaduan dagozan teknologien artean ikus-eraginik txikiena eta ingurumenaren ganean eraginik txikiena sortzen dauen teknologia erabili behar da.

2. Inguruneagaz bateragarriak izan behar dira, eta ikus-eragina eta ingurumenaren ganeke eragina murriztu behar dabe.

3. Ordenantza honen II. eranskinean jasoten diran integrazino arkitektonikoari eta segurtasunari buruzko erregelak bete beharko dabez.

4. Kontuan hartu beharko dabez 1066/2001 Errege Dekretuaren 8.7 artikuluan instalazino irrati-elektrikoen enpresa-plangintzeari buruz jasotako erispideak edo honeek ordeztu edo garatuko dauzan araudia.

### **13. artikulua. Kokatzeko erispideak.**

1.- Bermeo udalerrian telekomunikazino-instalazinoetarako eskatutako balizko kokapenak finkatzerakoan, indarrean dagoan legediak ezarten dauzan erispideez gainera, honako erispide honek be hartu beharko dira kontuan:

Soinuaren irrati-difusino eta telebista-zerbitzuei euskarria emoteko sareak ezarri, edota Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako B2 eta C2 titulartasunaren ondorio diran jarduerak hedatu nahi dabezan operadoreek udalerrri honetan eskatzen dabezan kokalekuetan, ezin izango dabez jabari publiko irrati-elektrikoa babesteko baldintzak, emisino irrati-elektrikoen mugak eta osasuna emisino irrati-elektrikoetatik babesteko neurriak ezartzen dauzan erregelamentua onartzen dauen 1066/2001 Errege Dekretuaren II. eranskinean adierazotako potentzia-dentsidadeko gehienezko balioa gaintitu, ezta garapen-araudian adierazotakoak be.

### **14. artikulua. Kokalekuen eta elementuen erabilera konpartitua.**

1. Udalak urigintza, ingurumen edo paisaje arrazoiak dirala-eta, interesdunen entzunaldiaren ostean, kokalekua konpartitzeko betebeharra ezarri ahal izango dau, arrazoi teknikoen edo juridikoengaitik ezinezkoa danean izan ezean edota bereizita instalatzen diran instalazinoen kasuan baino ikus-eragin handiagoa edo ingurumenaren gain eragin handiagoa izan daitekeen kasuetan izan ezean.

2. Lurzoru urbanizaezinean, soinuaren irrati difusino eta telebista zerbitzuei euskarria emoteko sareak ezarri, edota Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako B2 eta C2 titulartasunaren ondorio diran jarduerak hedatu gura dabezan operadoreek erabilera konpartituko azpiegiturak instalatu beharko dabez —teknikoki ezinezkoa danean izan ezean— operadoreek adierazoten dabezan azpiegituren arteko tartea 500 metrokoa baino txikiagoa danean. Izan be, telekomunikazinoen arloko araudiak eskaintzen dauzan aukerak erabilera iritsi daitekez, telekomunikazino azpiegituren instalazinoen erabilera konpartituari jagokonez.

3. Aurreko paragrafoan jasotako konpromisoa, hau da, kokalekuaren elementu nagusiak konpartitzea (sarbide barriak, euskarri dorreak, tresna osogarrien etxolarako hartu beharreko lursaila, antenak eta abar), operadoreek izenpetu beharreko hitzarmenean islatu beharko da eta udalari helarazo beharko jako.

4. Edozelan be, kasu honeetan mueta honetako instalazinoetarako goi-tentsinoko energia elektrikoaren hornidurea bateratu beharko da.

### **15. artikulua. Gainerako instalazino-operadoreei beste ezarpen barri baten barri emoteko prozedurea.**

1. Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako B2 eta C2 titulartasunaren ondorio diran jarduerak hedatu nahi dauzan enpresa operadore batek, erreferentziako garapen-programen arabera, Telekomunikazinoko Oinarrizko Estazino bat instalatzeko lizentzia eskatzen dauenean, udalak gainerako operadoreei jakinarazoko deutse. Gainerako operadoreek hogeieguneko epea izango dabe erabilera konpartiturako interesa azaltzeko, baimena eskatzen dauen operadoreak komunikazino hau egin dala egiaztatzen dauenean izan ezean.

2. Enpresa operadoreen batek erabilera konpartiturako interesa azaltzen badeutso udalari, aldeek hogeieguneko epea izango dabe horretarako baldintzak askatasunez finkatzeko.

3. Aurreko hogeieguneko epea amaitu eta generako enpresa operadoreek erabilera konpartiturako interesa azaltzeko adierazpenik egin ez badabe, edo interesa adierazo bada, baina interesa daukien operadoreen artean akordiorik lortzen ez bada, udalak, baimentzen dan kokalekuaren erabilera konpartitua bermatzeko betebeharra erabagi leike.

4. Prozedura honetan akordiorik lortzen ez bada, udalak kokalekua konpartitzeko betebeharra ezarteko eskatu ahal izango dau indarrean dagoan araudiaren arabera.

### **16. artikulua. Estazino irrati-elektriko bat baino gehiago kokaleku berean instalatzea.**

Zenbait operadoreen estazino irrati-elektrikoak kokaleku berean instalatzen badira, baimendutako operadoreek, batera zein kokalekuaren kudeatzailearen bitartez, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan ezarritako esposizino-mailei buruzko estatuko araudia bete izanaren egiaztagiria aurkeztuko deutse udalari. Errege Dekretu horrek Jabari publikoko Irrati-elektrikoa babesteko Baldintzak, Emisino Irrati-elektrikoen Mugak eta Osasuna



Emisino Irrati-elektikoetatik babesteko Neurriak ezarten dauzan Erregelamentua onartzen dau.

## **V. TITULUA**

### **IKUSKAPENA ETA KONTROLA**

#### **17. artikulua. Instalazinoen kontserbazinoa eta segurtasuna.**

- a) Lizentzien eta emakiden titularrek bere gain hartuko dabe instalazinoak segurtasun eta kontserbazino egoera egokietan mantentzearen ardurea.
- b) Udal zerbitzuek kontserbazino-egoera eskasa antzematen dabenean, irregulartasunaren barri emon beharko deutsee lizentziaren titularrei, jakinarazoten jakenetik epe zehatz baten barruan bidezko neurriak hartu daiezan. Pertsonentzako edo ondasunentzako arriskutsuak izan daitekezan egoerak antzematen diranean, barriz, bidezko neurriak berehala hartu beharko dira, indarrean dagoan araudiak ezarten dauenaren arabera.
- c) Jarduerea behin-betiko izten danean edo instalazinoetako elementuei behin-betiko erabilteari izten jakenean, lizentziaren titularrek edo instalazinoen jaubeek beharrezkoa dan guztia egin beharko dabe irrati komunikazinoeko ekipoak edota euren elementuak kentzeko edo erretiratzeko, bai lursaila eta bai instalazinoa eusteko eraikina eta eraikuntzea instalazinoa jarri aurretiko egoera berean geratzeko.

#### **18. artikulua. Kautelazko neurriak salbuespenez hartzea.**

Salbuespentzat eta zehapen espedienteari hasieraa emon aurretik, herri-administrazioek zehapen izaerea izango ez daben ondoko kautelazko neurriak finkatu ahal izango dabez, eta ordenantza honetan arau-haustetzat zehazten diran gertakarietako edozeinen ustezko arduradunari neurri honeek hartzeko exijitu ahal izango deutesie:

- a) Obrak edo jarduerak etetea.
- b) Aparatuak edo ekipoak zigilatzea.
- c) Ingurumenagazko kaltea zabaltzea eragotziko dauen zuzenketa, segurtasun edo kontroleko beste edozein neurri.

## **VI. TITULUA**

### **ARRISKUAK BERMATZEKO ETA ASEGURATZEKO TRESNAK**

#### **19. artikulua. Arriskuak aseguratzea.**

1- 7. artikuluan jasotako lizentzia eskatzen daben operadoreen ordezkariak diran pertsona fisiko edo juridikoek aseguru tresnen titulartasuna justifikatu beharko dabe. Aseguru horrek instalazino irrati-elektikoak ezarteak ondasunetan eta pertsonengan izan leikezan ondorioei behar bezala erantzun beharko deutse.

2- Aurreko artikuluaaren ondorioetarako, ondoko tipologiaren artean hautatu ahal izango da:

a) Udalarentzat behar besteko bermeak diran autoaseguru sistemak.

b) Aseguru merkaduan kontratatutako aseguru espezifikoak; bai erantzukizun zibilari eta bai euren ondasun eta instalazinoei jagokenez.

3- Tipologia horreetako edozeinetan aukeratutako aseguruak, eskatzaileak udalerrian bere titulartasunpean daukazan instalazino guztiei erantzun beharko deutse.

#### **20. artikulua. Instalazinoak kentzea eta ingurunea lehengotan iztea.**

Pertsonen osasunerako arriskua antzeman dala-eta, instalazinoen funtzionamendua preminaz gelditu behar bada, lizentziaren titularrari lan hori geldiarazoteko eskatuko jako. Edozelan be, instalazinoak kendu behar badira, ingurunea lehengotan itzi beharko da. Arriskua Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txosten bidez finkatuko da.

## **VII. TITULUA**

### **ZEHATZEKO ARAUBIDEA**

#### **21. artikulua. Aplikatuko dan araubidea.**

Ordenantza honen ondoriozko arau-haustek indarrean dagoan legediaren arabera zehatuko dira.

### **ALDI BATERAKO XEDAPENAK**

#### **LEHENA: Lizentziarik bako irrati-komunikazinoko instalazinoak.**

Bidezkoak diran zehapenak alde batera itzi barik, alkateari jakinarazoten jakonean, irrati-komunikazinoko instalazino bat, ordenantza honetan arautzen dan aginduzko lizentzia barik martxan dabilela, alkateak holan jardungo dau:

a) Instalazinoak ordenantza honetan batzen diran baldintzak beteten badauz, instalazinoa legeztatze epe zehatz bat emongo jako; edozelan be, epea ez da sei hilebetetik gorakoa izango.

b) Sektore honi jagokonez indarrean dagoan araudia ez beteteagaitik edo ordenantza honetan ezarten dana ez beteteagaitik instalazinoa legeztatzerik ez badago, instalazinoa itxi egin beharko da, beti be interesdunaren entzunaldiaren ostean.

#### **BIGARRENA: Jadanik instalatuta dagozan Telekomunikazinoko Oinarrizko Estazinoak.**

Jadanik instalatuta dagozan telekomunikazinoko oinarrizko estazinoak batera agertzen diranean, arian-arian elementuak konpartitzeko hitzarmenak edo akordioak finkatu beharko dira.

#### **HIRUGARRENA: Baimendutako instalazinoak ordenantzara egokitzea.**

Ordenantza honen xede izanik, udal lizentzia daukien eta martxan dagozan instalazinoek urtebeteko epea izango dabe instalazino irrati-elektriko guztiak irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan aurreikusitakora egokitzeko.

#### **LAUGARRENA: Muga irrati-elektrikoak.**

Telekomunikazino sareetako instalazino irrati-elektrikoetan sorburua daukien eremu elektromagnetikoetan sortutako emisino irrati-

-elektriko guztiek legeak ezarritako mugak bete beharko dabez, hau da, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan edo berau osotuz edo ordeztuz emoten dan araudian adierazotakoak.

Euren emisinoetan mugak ezarri jakezan operadore guztiek adierazotako araudia bete izanaren egiaztagiria bialdu beharko deustie udalari urte natural bakoetxeko lehen hiruhilekoan.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

### **BAKARRA: Garapena.**

Ordenantza hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, udalak erregistro berezi bat sortuko dau. Bertan, Bermeo udalerrian jadanik dagozan telekomunikazino-zerbitzuak bialtzeko eta hartzeko instalazino guztiak erregistratu beharko dira, baita honeetan egin daitekezan aldaketak be.

## **AZKEN XEDAPENA**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan 7/1985 Legearen 70.2. eta 65.2. artikuluetan ezarten danari jarraituta, ordenantza hau udaleko Osoko Bilkureak onartu beharko dau eta, gero, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta handik 15 egunera jarriko da indarrean. Aldatzea edo indargabetzea erabagiten ez dan bitartean indarrean egongo da ordenantzea.

## **I. ERANSKINA**

## **TELEKOMUNIKAZINO INSTALAZINOETARAKO DOKUMENTAZINO TEKNIKOAK**

### **1- AURKEZTU BEHARREKO INSTALAZINOEN EGIAZTAGIRI TEKNIKOAK**

- Eraikinak instalazioaren gainkargea jasan leikeela egiaztatzen dauden egiaztargiri teknikoak; edozein munitateko proiektu egitura-errefortzurik egin behar izan ezker, jagokoa teknikiariak izenpetu beharko dau.
- Ekipoak eta aparatuak aplikatzen jakezan zehaztapen teknikoakaz bat datozela egiaztatzen daben onarpen egiaztargiriak.
- Telekomunikazio zerbitzua egiteko gaitzen dauden eta indarrean dagoan bidezko tituluaren jaube izatearen egiaztargiria, aplikatu daitekeen araudi orokorrean eta sektoreko araudian xedatutakoaren arabera. Edota eskaria egiteko bidezko titulua daukan pertsona batek eskatzailea behar beste ahalduntzen dauela jasoten dauden egiaztargiria. (Instalazioaren Erregistroari buruzko identifikazioa).
- Zientzia eta Teknologia Ministerioak alde aurretik instalazioa baimendu eta ikuskatu izanaren egiaztargiria.

### **2- PROIEKTUAREN GAINEKO INFORMAZINOA EDO PROPOSAMEN TEKNIKOAK, INSTALAZINO IRRATI-ELEKTRIKOEN BAIMENA ESKATZEKO BEHARREZKOAK.**

- a) Telekomunikazio zerbitzu bat egiteko azpiegitura bat ezarteko interesa daukan telefonia mugikorreko operadorea ordezkatzeko dauden enpresa eskatzailearen datuak:
  - I. Soziedadearen izena eta IFZ.
  - II. Helbide osoa.
  - III. Legezko ordezkartzea.
- b) 165/1999 Dekretuaren IV. eranskinean ezarritakoari lotuko jakon eta honako honeek bildu beharko dauzan dokumentazio teknikoak:
  - Oinarrizko proiektua, jagokoa teknikiariak idatzia. Proiektuak jarduerak eta halan danean, instalazioa eta hesiak deskribatzeko behar beste informazio emon beharko dauz.

- Zientzia eta Teknologia Ministerioak instalazio irratieko indarrean dagoan araudian ezarritako baldintzak betez, emondako baimena behin betiko onartu izanaren egiaztatzea.

c) Instalazioaren datuak.

I. Antenearen kokalekua agertzen duen planoak, UTM koordenatuetan eta gehienez be 1:2000 kartografian eta lauki-saredunean. Planoan ingurumen arloko ebaluazioan eragina daukien azpiegiturak grafiatu beharko dira.

II. Eraikin mugakideen kokaleku erlatiboa adierazoko duen 1:200 eskalako planoak.

III. Indarrean dagoan urri plangintzearen arabera instalazioak hartzen duen luraren sailkapenaren eta kalifikazioaren egiaztatzea.

IV. Azpiegitura beste operadore batzuek batera erabilteko aukeraren justifikazio teknikoak.

### 3. MEMORIA

Memoriak ondoko edukia izan beharko dau:

a) Instalazioen egonkortasunaren justifikazio kalkulak, bai egiturazkoak eta bai finkapenari jagokozanak, eraikuntza planoak batera.

b) Ikus-eragina eta ingurumen eragina ahalik eta txikienak izan daitezkan, ezarriko diran ekipoak tipologiari eta ezaugarriei jagokenez teknologia aldetik onenak dirala justifikatu beharko da.

c) Jatorri atmosferikoa daukien deskarga elektrikoaren aurka babesteko hartutako neurri zuzentzaileen deskribapena eta justifikazioa.

d) Ikus-eraginaren dokumentazio fotografikoa, grafikoa eta idatzia; dokumentazio honetan argi eta garbi jaso beharko da instalazioak finkeari jagokonez daukan kokalekua eta finkearen beraren kokalekua: instalazioa ezarriko dan ingurunearen deskribapena, hedadura, forma, materialak eta beste ezaugarri batzuk. Oinezkoen perspektibatik instalazioak daukan ikus-eraginaren simulazio grafikoa be gaineratu beharko da.


## II. ERANSKINA

### INSTALAZINOAREN SEGURTASUN ARAUAK

#### Gitxieneko distantziak

##### I. Eraikinen ertzetan dagozan antenak.

Antenak eraikinen ertzetan jarri behar diranean eta bertarako sarbidea instalazinoko eta kanpoko pertsonak konpartidu behar dabenean, gitxienez 2 metroko distantzia itzi beharko da antenearen beheko ertzaren eta eraikinaren azalerearen perpendikularraren artean.



## **II. Eraikinen estalkiaren gainean dagozan antenak.**

Antenak eraikinen estalkian jarri behar diranean eta estalkia instalazioaz kanpoko pertsonen sarbideagaz konpartidu behar danean, gitxienez 2 metroko altuerea errespetatu beharko da, eta horrezaz gainera eraikinen ertzakazko distantziaren proportzino zuzena be gehitu beharko jako.

## **III. Norabide guztiak daukiezan antenak.**

Galazota dago, oro har, antenearen norabide nagusian 10 metro baino gitxiagoko erradioan antenearen instalazioaz kanpoko pertsonak sartzea.

Edozelan be, sarrera-eremuan ezin izango dira irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan edo berau ordeztu edo garatzen dauen araudian jasotako potentzia-dentsidadeko gehienezko balioak gainditu.